

## **DURANGO SARIAK 2023**

### **OINARRIAK**

#### **Lehena**

Arlo sozialean, kulturean zein kirolean, Durangoko eta/edo Durangon lan egin duten pertsona fisiko eta juridikoen lana aitortzeko, egiten da DURANGO SARIAK sarien deialdia, hirugarren oinarrian zerrendatutako kategorietan.

#### **Bigarrena**

Sariak ohorezkoak baino ez dira, eta ez dute ekarpen ekonomikorik. Egindako lanaren aintzatespen publikoa egingo da eta Durangon egingo den ekitaldian dagokion saria emango da.

#### **Hirugarrena**

DURANGO SARIAK, urtean zehar honako kategoria hauetan lortutako merezimenduak aitortzera zuzenduta daude:

- Durangoko kirol elkarteak.
- Durangar kirolaria.
- Durangar kirolari edo elkarteak. Hautaketa herrikoia.
- Durangoko kultur elkarteak.
- Kultur arloan pertsona esanguratsua.
- Kultur arloan pertsona edo elkarte esanguratsua. Hautaketa herrikoia.
- Arlo sozialeko elkarteak.
- Sari berezia.

Era berean, sari horietaz gain, Durangoko Udalak aipamen bereziak eman ahal izango dizkie elkarte eta norbanakoei Durangon gizarte, kultura edo kirol-arloan egindako lanaren aitortzagatik.

#### **Laugarrena**

Aukeratzeko modua honako hau izango da:

1. Edozein pertsonak edo erakundek aurkeztu ahal izango ditu hautagai-zerrenda bat edo batzuk idatziz. Horretarako eskaera Durangoko Udaleko Herritarren Arreta Zerbitzuan erregistratu beharko du edo egoitza elektronikoaren bitartez.
2. Hautagaitza aurkezteko epea iragarkia Bizkaiko Agiri Ofizialean publikatu eta hurrengo egunean hasiko da, 2023ko irailaren 18ra arte.
3. Proposamenarekin batera, saria merezi duela onartzeko merezimenduak aurkeztu beharko dira. Merezimendurik gabe jasotzen diren proposamenak ez dira aintzat hartuko.
4. Aintzatespena merezi duten pertsonak edo erakundeak kanpoan gera ez daitezten, epaimahaiak bere hautagaiak proposatu ahal izango ditu, dagozkien merezimenduekin.
5. Horretarako izendatutako epaimahaiak epe barruan aurkeztutako eskabideak baloratuko ditu eta saria merezi duten hautagaiak erabakiko ditu. Gehienez 20 puntu emango ditu, irizpide hauen arabera:
  - Kultur, kirol edo giza arloan izandako ibilbidea: 8 puntu, gehienez ere.
  - Durangoko kultura, gizarte edo kirol bizitzan inplikazioa: 6 puntu, gehienez ere.
  - Proiektzioa Durangotik kanpo: 6 puntu, gehienez ere.



6. Herri-bozketa bidez aukeratuko dira. Fase honetara kategoria bakoitzeko 5 hautagaitza pasatuko dira: punturik gehienak jaso dituztenak.

- Kirol-arloan nabarmendu den pertsona edo erakundea.
- Kulturaren arloan nabarmendu den pertsona edo erakundea.

Bi sari horiek partehartu.durango.eus webgunearen bidez aukeratuko dira. Bozkatzeko epea irailaren 21etik 30era izango da.

### **Bosgarrena**

Honako hauek osatuko dute DURANGO SARIAK emateko epaimahaia:

- Presidente: Jérica Ruiz. Durangoko Udaleko herrigintza saileko presidentea.
- Epaimahaikideak:
  - o Durangoko Udaleko herrigintza saileko zinegotzi bat.
  - o Arantza Arrazola. San Agustin Kultur Guneako arduraduna.
  - o Verónica Redondo. Durangoko Udaleko inmigrazio teknikaria
  - o Asier Bikandi. Durangoko Udaleko erakunde autonomoen gerentea.
- Idazkaria: Ander Alvarez. Durangoko Udaleko herrigintza saileko teknikaria.

Epaimahaikideen izendapena aldatu ahal izango da, haien izaerari eutsita eta presidentearen oniritziarekin.

2. Epaimahaiak gehiengo soilez erabakiko ditu DURANGO SARIAK. Berdinketa gertatuz gero, presidente kargua duen botoak erabakiko du.
3. Epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da, eta horren aurka ezin izango da errekurtsorik jarri.
4. Durangoko Udalak irabazleak iragarriko ditu Udaleko web orrialdean eta Udaleko iragarki taulan.

### **Seigarrena**

Oinarriak eta eskaera orria Durangoko Udaleko web orrialdean ([www.durango.eus/durangosariak](http://www.durango.eus/durangosariak)) egongo dira eskuragarri.

### **Zazpigarrena**

Sariak emateko ekitaldia azaroan zehar egingo da, urtero zehaztuko den egunean.

Durango, 2023ko uztailaren 12a

Alkateordea

Jesica Ruiz Pérez



**DURANGO**  
Udala • Ayuntamiento